

# PETROLIO-GERRA, 90.EKO HAMARKADARAKO EREDU?

Mikel Zurbano

## Informazio-gerra

Golkoko gatazka dela eta komunikabideen ugaritasuna dugu elementurik garrantzitsuenetarikoa. Hein berean, elementu honek gatazka armatuen garapenerako aurrikusten den barne-logika berria eta arrazoa ulertzeko galdera anitz plazaratzen du.

Informaziorako bide eta teknologiaren zabalkunde paregabe hau izan arren, gerraren errealitateaz ezagumendu-maila oso eskasa izan da. Azpimarratzekoa da eskainitako informazioaren asimetria (*eraso basatia/eragiketa kirurjiko*a, etab. alde batez ala besteaz mintzatzean) eta milaka irakiar hiritarren sarraskia trebakuntza gimnastikoaren ariketa gisa maskaratu nahia.

Beraz, desinformazioa eta manipulazioa areagotu egin dira, esparru militarri aplikaturiko telekomunikazioen esperimentazio, garapen eta hedapenaren arloan sekulako aurrerapenak erakutsi diren bitartean. Sektore honetako itxuraldaketaren aurrean geundeke, *gerra-frontearen* osagai berria izanik. Helburu zehatza bete bait du: herrialde *aliatuetako* barne-egonkortasunerako hain garrantzitsua den -Vietnam gogoratu- mendebaldeko eritzi publikoa *entretenu* eta, bidenabar, neutralizatzea.


**Gatazka  
armatuaren  
kokagunea.**

## Zein testuinguru ekonomikotan kokatzen dugu gerra?

Aztergai dugun gatazka hobeto ulertzeko, ezin dugu ahaztu gerra hau merkatu orokorrerako bidean dagoen munduko bilakaera ekonomikoaren koordinatuetan kokatu

dela. Ikuspegi historikotik, garapen kapitalistaren garai honetan kapitalaren internazionalizazio-prozesua (kapital-ziklo osoaren internazionalizazioa, produkzio-sistema barne<sup>1</sup>) da ezaugarriarik aipagarriena.

Garai honek, bada, mundu ororako merkatua eta, beraz, mundu-



1. Produkzio-sistemaren internazionalizazioa nazioarteko enpresak finkatu eta garatzearekin batera gertatu da.



-mailako metaketa bideratzen du. Joera hau ez da erabatekoa; ezta uniformea ere, noski. Izan ere prozesu honetan tirabira protekzionista ugari tartekatzen da oraindik ere, baina egoera honek ezin du egun munduko ekonomian kapital transnazionalak duten hegemonia ezkutuan utzi.

Ekonomi dinamika orokor honen emaitza nagusia, honako hauek ditugu: lehenik, Erdigune eta Periferiako herrialdeen arteko polarizazio hazkorra, aldi berean mundu-mailako aberastasunaren banaketa-desberdintasun handiagoak, egungo ekologi krisiaren jatorri den natur baliabideen kontrolik gabeko esplotazio edo ustiakuntza, kontsumo-arauen homogenotzea, gosea, etab.

Guzti honi ekonomi krisien arazoa gaineratu behar zaio, zeina garapen kapitalistaren egitura-azalpenik garrantzitsuenetakoa bait dugu. Hirurogeigarreneko hamarkada amaitu ondoren garatzen den krisiak bere horretan dirau, une zehatzaren eta herrialdearen arabera bere trinkotasuna aldatzen bada ere. Golkokoa lehertu aurretik adibidez, mendebaldeko herrialde gehienak kojuntura atzerakorrean aurkitzen ziren, beti ere krisialdiaren testuinguruan.

Esate baterako, Estatu Batuetan merkatal eta finantz defizit handiekin batera produzioaren hazkuntza oso apala izan zen 1990. urtearen lehen erdialdean<sup>2</sup>. Tentagarria da oso egoera honen eta Kuwaiti egindako erasoaren aurrean Estatu Batuen erantzun azkarraren arteko lotura taxutzea. Estatubatuar ekonomiak gerra honen bukaeran ezagutu duen berpizkunde kojunturalak hipotesi honen funtsa sendotu egiten du. Munduko *gendarme*-funtzioak, bada, etekin pottoloak eskuratzeko



aukera eskaintzen du. Arlo politikoan ezetik ekonomiko soilean ere bai; etekin hauen finantz kostua oraingo borroka honetan bezala beste estatu batzuei leporatzen bazaie batipat!

Bestalde, beste gertakizun berri batzuek ere gerra aurretiko une ekonomiko-politikoan bete-betean eragin zuten. Batetik, sozialismo errealearen beherakadak munduko sistema kapitalistaren hedapenari ateak zabaldu zizkion eta Bigarren Mundu-Gerraren ondoren munduko ordenua arautzen zuen bloke-politikaren suntsipena ekarri du. Bestetik, sistema kapitalistaren barnean Nazioarteko Ekonomi Ordenuaren berrorientazioa agertzen da. Bertan aipagarri dira lanaren nazioarteko banaketaren joera berriak eta Estatu Batuen, EEE/Alemanien eta Japoniaren inguruko hiru eremu geoekonomikoen behin-behineko itxuraketa.

Horregatik, bi Mundu-Gerren testuinguruko egoeran ez bezala, oraingoan gatazka ez da kapitalarteko konkurrentzia gisa azaldu. Hegoaldearekiko hegemonia ezartzen duen ordenu ekonomiko-politikoaren iraunkortasun-adierazpena litzateke oster. Guztiz adierazkorra da, hain zuzen, Europako herrialdeek eta Japoniak EEBBen ekimenarekiko erakutsi duten autonomiarik eza. Dena den, garapen beliko honen soslai ekonomikoa bat dator ezaugarri inperialistako gatazka klasikoekin, non helburu politiko xehez gain lehengaien (petrolioaren) kontrolak ere lehen-tasuna bait du.

2. Zehatz esanda, garai horretan produkzioaren hazkuntza puntu erdiaz azpikoa izan zen.

## Ekialde Hurbila munduko ekonomian

Eremu honetako egungo gertae-  
rak ulertzeko, ezinbestekoa dugu  
Ekialde Hurbilak munduko azken  
urteotako historian izandako rola.  
Hasteko, mende honen hasieraz  
gero tirabira eta istilu ugariko ere-  
mua izan da, inperio otomanoaren  
porrotaren ostean mendebaldeko  
potentziak bertan ezarri eta berau-  
en menpeko banaketa politikoa  
inposatu ondoren. Halaber, Israel-  
go Estatuak lurralde palestinoan  
finkatu da, azken hamarkadetan  
lurralde haietako segurtasun eta  
egonkortasun ezaren iturri nagusi  
bihurtu delarik.

Honez gain, ekonomi ikuspegi  
soiletik eremu hau sistema kapita-  
listaren periferiako partetzat har  
daiteke. Bertako ekonomien barne-  
egituraketa erabat ahula da. Haz-  
kuntza demografikoa handia izan-  
nik, baliabide gutxiko herrialde-  
tan are handiagoa da eta, beraz,  
barne-inmigrazioaren korrante  
handiak eta errenta-banaketa-  
ren polarizazio nabarmenak aipatu  
egoeran du jatorria.

Lurralde hauetako herrialdeek  
lanaren nazioarteko zatiketaren du-  
ten kokaerari begiratu bazez, lehen  
esportatzaileen ereduaren sartu  
ahal direla azpimarra daiteke.  
Egoerarik onenean petrolioaren  
monoprodukzioa egon ohi da eta  
kanporantzko joera indartsua era-  
kusten dute. Berraipatzekoa da  
errenta-egituraren dauden desber-  
dintasunak herrialdeen artekoak


(petroliodun herrialde eta gabekoan  
artekoak batez ere, ikus 1. irudia.)  
zein talde sozialen artekoak izatea.

Esan bezala, lurralde hauetan  
herrialde arteko diferentziak mutu-  
rreko errealitate ekonomikoak sor-  
tzen ditu eta hau dugu, funtsean,  
errenta altuko Estatueterako emi-  
grazio-korrontearen jatorria. Atze-  
rriko eskulanaren presentzia ga-


rarrantzitsua dela medio, eskulan  
honek ekonomi zeregin bikaina  
betetzen du lurralde hauetako eta  
Asiako beste herrialde batzuetako  
errenta-iturri gisa (ikus 2. irudia).  
Errenten arteko barne-diferentzien  
arloan, gutxiengo batek duen ira-  
bazi-maila handiak luxuzko kon-  
sumoa sortezten du, horrela  
bertako eskari pribatuak kanpo-  
arriko menpetasun nabarmena  
azaltzen duelarik.

Hala eta guztiz ere, petrolioaga-  
tik lortutako errentek nolabaiteko  
aurrezki eta kapitalizatorako au-  
kera uzten dute. Barne-aurrezki-  
a, ordea, ez da bideratuko bertako  
ahalmen produktiboa handiagot-  
zera; mendebalde kapitalistako  
produktio- eta finantz sisteman  
birziklatzera baizik.<sup>3</sup>

Laburbilduz, izaera politiko eta  
kultural xeheko gatazka aparte lu-  
rralde hauetako egoera sozio-eko-  
nomikoaren osagarri desegonkor-  
tzailea ere kontutan hartu behar  
da, honen ezaugarriak honako  
hauek izanik: garapen produkti-  
boaren maila apala (industrializa-  
zio ahula eta petrolioaren mono-  
produkzioa) eta giza nahiz nazio-




1. irudia.



2. irudia.

3. Adibiderik ezagunena eta argiena KIO kuwaitar taldea da, zeinak mendebaldeko sektore desberdinetako enpresa askotan partaidetza garrantzitsuak bait ditu.



3. irudia.

arteko desberdintasun nabarmenak.

### Petrolioaren PLEE (OPEP) eta krisia

#### Energi oinarria

Bigarren Mundu-Gerraren ondoren, hedapen ekonomikorako oinarri den (eta egun oraindik dirauen) energi eredia gauzatu da. Eredu honen pean, energi baliabide urri eta berriztagaitzen zarrastelkeria da araua eta energi kontsumo

mo altua eskaintzaren monokultiboaz osatzen da.

Eredu honetan, energi iturrien artean erregina petrolioaren izan da eta (gerra honen zergatiak adierazten duenez) oraindik ere bada. PLEEaren eskusartzea, eskaintza-kartel gisa, 1973 eta 1979ko petrolioaren prezio-igoeren jatorri izan zen. Igoera hauen ondorioz, energi kontsumo eta produkzioaren dimentsio eta egitura eraldaketa erlatiboa burutu da.


Eskariaren esparruan energi kontsumoa murriztu egin da eta,aldi berean, beste iturri energetiko

batzuen erabilpena areagotu; nuklearrarena batez ere. Eskaintzaren aldetik, PLEEko herrialdeetako errekin-produkzioak behera egin du eta beste herrialde batzuetakoak, aldiz, gora, nahiz Hirugarren Munduan (Mexiko, Brasil, India, etab.en) nahiz mendebaldean (Britainia Handia, Norvegia, Sobietar Batasuna, Estatu Batuak<sup>4</sup>, etab.en).

#### Energi egitura laurogeigarreneko hamarkadan

Energi kontsumoaren egiturari dagokionean, errekinaren presioarekiko kontrako korrelazioa du, nahiz eta honen eskari-elastikotasuna apala den. Horregatik uler daiteke prezioak bikoiztu eta gero herrialde kapitalistek petrolioarekiko menpekotasuna erlatiboki murriztea.

Bestalde, 4. irudiak isladatzen duenez, errekinaren kontsumoaren nazioarteko egitura gerra aurreko garaian Mendebaldearen Hegoaldearekiko nagusitasun osoa erakusten du. Azpimarratzekoa da 1989an EEBBek, bakarka, munduko petrolioaren kontsumo osoaren % 20 izatea. Per capita kontsumoa erreferentziatuz hartuz, EEBBeko gizaki batek Japonia edo EEEkoak baino bi aldiz gehiago kontsumo



4. irudia.

4. Estatu Batuen jokabidea, petrolioaren prezioaren araberkoa dela aipatu behar da. Errekina zenbat eta garestiagoa, hainbat eta gehiago erabili ohi du bere erreserbetatik, prezioa jaisten denean kanpoko produktora jotzen duelarik.

mitzen du eta Hirugarren Munduko batezbestekoak baino zortzi bider gehiago.

Eskariaren aldetiko egoera honen aurrean, produkzioan energi iturri berri hauek eragina dute, sektore nuklearra gogor agertzen delarik. PLEEtik kanpoko petroliodun beste herrialde batzuen eskaintza igo egin da, 1989an munduko petrolio-produkzio guztiaren % 63,5era helduz eta PLEEko herrialdeen produkzioa % 36,5 izatera jaitsiz (1973an % 50).


PLEEko herrialdeen eskaintzaren indargaltze erlatiboa ez dator bat epe luzerako PLEEaren beste errealitate sendoago batekin, hots, munduan ezagutzen diren petrolio-erreserben % 76 bertan egotearekin. (5. irudia). Irudi berean azaltzen denez, Ekialde Hurbileko lurraldeetan munduko erreserba guztien % 65 dago eta, Estatu Batuen partaidetza ozta-ozta % 3koa da.

#### Petrolio eta gerra

Azken zenbaki horiek kontutan hartzen baditugu eta petrolio-erreserbek (egungo produkzio-erritmoa mantenduz) 45 urteko epe-muga izanik, eremu honetako mapa geoestrategikoaren edonolako aldakuntzan Mendebaldeko interesentzat duen garrantzia begibistan dago. Hauxe da, hain zuzen, aztergai dugun gerraren lehen arrazoi eta, aldi berean, azalekoena.

Bestalde, Golkoko gatazkarekin jokabide espekulatuzaileak areagotu egin dira. Eskaintza-arazorik ez egon arren<sup>5</sup>, petrolio-prezioaren igoerak izugarriak izan dira Golkoko tirabirek iraun duten artean. 1990.eko uztailaren azken eguneko batazbesteko prezioa upelako, adibidez, hogeit hamar dolarrekoa bazen, abuztuaren hiruan 29koa zen eta urriaren hasieran 41-42 dolarretan goia jo zuen prezioak. Hortik aurrera beherako joera nagusitu da petrolioaren prezioan, gorabeherak direla medio, artikulua hau idatzi denean berriro ere hogeit hamar dolar inguruan finkatu delarik.

Uztailaren amaierako eta egungo prezioak berdintsuak dira. Petrolioaren eskaintza mantendu edo igo egin da bitartean. Zer gertatu da, bada, zortzi hilabeteotan prezioa horrenbeste igo dadin?. Erantzun



5. irudia.

posible bakarria hau da: espekulazioak berea egin duela behin eta berriro. Horretan petrolioaren merkatuak duen egituraketa oligopolistak erabateko eragina du. Nahiz eta datuak eskuragarri ez dauden, serugutzat jo daiteke petrolioaren banaketa-sistemaren gaineko kontrola duten elkarte transnazionalen eskusartzea aipatu jokabidearen arrazoi nagusi dela.

Aipamen berezia merezi du, PLEEko barne-iskanbilen zergatia aztertzeak. Labur esan, erakunde honetan bi interes kontrajarrri egon ohi dira. Batetik, erreserba ugari herrialdeak daude, zeintzuek PLEEk ezarritako kuota-sistema oso estutzat jotzen bait dute. Hauek bat datoz Mendebaldeko petrolio-prezioen maila apala mantentzeko estrategiarekin eta hori esparru politikoan ere isladatzen da. Bestetik, erreserba gutxien dutenen ahaleginek prezioa igotzera bultzatu ohi dute. Finean, Golkoko gerrak PLEE barneko indar-korrelazioa aldatu egin du, lehen motako herrialdeen alde (Saudi Arabia,

Kuwait, Emirerriak, eta abarren alde).

#### Eta orain zer?

Aliatuen garaipen argiaren ondoren indarraren logika nagusitu da. Munduko ordenuaren legitimitatea azken finean indarkerian dartzala frogatu da berriro ere. Mendebaldearen nagusitasuna agertu nahi izan dute eta halaxe egin ere.

Ipar eta Hegoaren arteko urruntasuna areagotzeko baldintza berriak daude. Dirudienek EEBBak *gendarme* izan daitezten adostasun handia dago Mendebaldean, interes kontrajarririk baldin badago Mendebalde eta munduko pobreen artekoa dela azpimarratuz. Bigarren mailan geratzen da Iparraldeko herrialdeen arteko konkurrentzia.

Ekialde Hurbileko egungo egoerak isladatzen du gerra honen giza kostuaren tamaina. Kurdistan eta Palestinako herriak zapuztuta, eragin ekologiko paregabea, autoritarismo politikoaren indartzea, dese-

5. Irak eta Kuwaiten kuoten eskaintza PLEEko beste herrialde batzuek bete dute ia krisiaren hasieraz gero eta, gainera, mendebaldeko lurraldeek petrolio-stock handiak metatuak zituzten ordurako.



**Petronor  
birfindegia.**

gituraketa ekonomiko eta finantzarioak, erbesteratzea, gosea... Gerra dela eta lurralde hauetan barne-aldaketa ugari izango den bitartean, kanpora begira duen menpetasuna areagotu baino ez da egingo; autonomia handiagoaren aldeko indarrak ezerezean geratu bait dira.

Horretaz gain, Hirugarren Munduko beste herrialdeentzat eredu izan da gerra hau. Artikulu honetan aztertzen den bezala, herrialde

batzuk dagoeneko gerraren ondorio ekonomikoak pairatzen ari direla ikus daiteke eta hori gogorra bada ere, estatu hauetako arazo larrien arrazoizko irtenbideei atea itxi egiten zaizkiela ikustea are kezkarriagoa da.

Gainera energi sektorean ere irtenbide *gogorraren* aldeko apostuak irabazi duela dirudi. Petrolioia eta indar nuklearra indartu egin dira energi iturri gisa, eskema za-

harberritu edo hibrido hau errotik ustelduta dagoela onartu ezean. Ez da, beraz, harrigarria izango, ereduak bere horretan jarraitzekotan, etorkizunean berriro energi iturrien kontrolerako gatazkak (agian leunagoak) sortzea.